2022ko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2022

Kostu bidezko ondare transmisioen kasuan Itundutako zergei eragiten dieten gastu fiskalen zenbatekoa Aurrekontuen Proiektuan nahitaez sartu behar denez, dokumentu honetan 2022ko ekitaldiari buruzko Zerga-gastuen Aurrekontua aurkeztuko da, urtero bezala.

Arautegiak ezartzen duen betebehar hau, aldi berean, Espainiako Konstituzioan agertzen da, hain zuzen ere bere 134.2. artikuluan eta helburua, azken finean, tributuak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

Era berean, Euskadiko Aurrekontuen Araubidea arautzen duen araudiak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuek, Foru Aldundiek Euskal Herriko aurrekontu gastuei kontribuzio gisa egindako ekarpenei dagozkien zerga onurak gordailatuko dituzte.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 39. artikuluak xedatzen duenez, Bizkaiko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren urteko proiektuari nahitaez atxiki beharko zaio zerga-gastuen aurrekontua, besteak beste.

Horrez gain, Ogasun eta Finantza Saileko Egitura Organikoaren Erregelamenduak, urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutakoak eta abenduaren 29ko 130/2020 Foru Dekretuak aldatu duenak, 50. artikuluko 17. apartatuan xedatzen du Zerga Politikako Zerbitzuari dagokiola BLHko zerga-gastuen aurrekontua egitea.

Zerga-gastuen aurrekontuaren helbururik behinena Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propiokoak diren zergak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

ZGA definitzeko esan daiteke urte osoan zehar gertatuko den zerga sarreren murrizketaren adierazpen zenbakizkoa dela. Murrizketa hori

Con el fin de dar cumplimiento a la obligación de incluir en el Proyecto de Presupuestos Generales de Bizkaia el importe de los gastos fiscales que afecten a los tributos concertados, en este documento se procede a la presentación, como todos los años, del Presupuesto de Gastos Fiscales, referido al ejercicio 2022.

Esta obligación normativa viene incluso recogida en la Constitución Española en su artículo 134.2 y su fin último es cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos.

Igualmente, la normativa reguladora del Régimen Presupuestario de Euskadi establece que los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

Por su parte, el artículo 39 del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, establece que, al proyecto anual de Norma Foral de Presupuestos Generales de Bizkaia, se deberá adjuntar obligatoriamente, entre otra información, el Presupuesto de Gastos Fiscales.

Por otro lado, el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobado por DF 3/2020 de 28 de enero, y modificado por DF 130/2020, de 29 de diciembre, en su artículo 50, apartado 17 establece que corresponde al Servicio de Política Fiscal, la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales del THB.

El Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF) tiene como principal objetivo cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia.

El PGF puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que se producirá a lo largo del año como consecuencia de

politika ekonomiko eta gizarte politikaren arloetako helburu jakin batzuk lortzeko izaten diren zerga pizgarrien ondorioz gertatzen da.

Zerga politikaren eta ekonomian dagoen esku hartze publikoaren analisirako tresna izateko erabilera du; honela, gizarte eta ekonomia arloko xede desberdinei (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aurrezki eta inbertsioen sustatzea, etab) arreta jartzeak ekarriko lukeen zerga sakrifizioari buruzko informazioa lortuko genuke. Era berean, zerga-gastuak kuantifikatzeak, aurrekontuaren benetako dimentsioaz ohartzea ahalbideratzen du.

Nahiz eta legez ZGAren edukia zehaztu gabe egon aspaldiko urte hauetan zehar gastu hauek egiteko irizpide batzuk definitu direla esan daiteke.

Horrela, bada, azken ekitaldi hauetan erabili den metodologia zergen koordinaziorako organoaren bidez adostutakoa izan da, batez ere zuzeneko zergei dagokienez, hain zuzen ere zerga-gastuaren zenbatespena zeharkako zergetan estatuko ZGAk ezartzen duelako arlo horretan Foru Aldundiek ez dutelako eskumenik arautegiak emateko.

Azken urteetan, lanak egin dira hiru lurralde historikoetarako metodologia erkidea eguneratzeko EZKErekin batera, eta zerga-gastuak zenbatzeko eta zenbatesteko zenbait irizpide metodologiko erkide ezartzeko balio izan du, betiere etorkizuneko aurrerapenetara eta berrikuspenetara irekita, hain zuzen kontzeptuen garapenen edo zenbatespenaren eta informazio eskuragarriaren hobekuntzaren ondorioz.

Dokumentu honen edukiak bereziki ondoko alderdi hauetan finkatzen dira:

- Zerga hobariaren kontzeptua mugatzea.
- ZGA uki ditzaketen arauen aldaketen azterketa eta horiek zenbatesteko prozedura, baldin eta eragiketa horiek egiteko informazio nahikoa badago.

incentivos fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Tiene la utilidad de servir como instrumento de análisis de la política fiscal y de la intervención pública en la economía, proporcionando información sobre los sacrificios fiscales que supone la atención a diferentes objetivos de carácter social y económico (educación, vivienda, sanidad, promoción del ahorro e inversiones, etc.). Así mismo, la cuantificación de los gastos fiscales permite apreciar la verdadera dimensión del presupuesto.

Aunque legalmente no está especificado el contenido del PGF, a lo largo de los años se han ido definiendo una serie de criterios para su elaboración.

Así, la metodología utilizada en los últimos ejercicios ha sido consensuada a través del Órgano de Coordinación Tributaria, sobre todo en lo referente a los tributos directos, ya que la cuantificación del gasto fiscal en los tributos indirectos viene determinada por el PGF del Estado dada la falta de competencia normativa de las Diputaciones Forales en esta materia.

En los últimos años se han efectuado trabajos consistentes en la actualización de la metodología común para los tres Territorios Históricos junto con el OCTE y han servido para establecer unos criterios metodológicos comunes para la cuantificación y estimación de los gastos fiscales, en un contexto abierto a futuros avances y revisiones, fruto de desarrollos conceptuales o de mejoras en la estimación y la información disponible.

Los contenidos de este documento abarcan básicamente las siguientes cuestiones:

- La delimitación del concepto de beneficio fiscal.
- El examen de los cambios normativos que puedan afectar al PGF y el procedimiento para su cuantificación, cuando se dispone de información suficiente.

- Metodologien deskripzioa eta erabili diren estatistikako iturriak.

Zerga-gastu moduan sartzen dira zergadunentzat zerga hobariak eragiten dituzten zergen arloko kontzeptu edo parametro guztiak, hain zuzen ere zerga administrazioaren biltzeko ahalmena murrizten eta mugatzen dutenak. Elementu horiek ondoko bitarteko hauen bidez taxutzen dira: salbuespenak; zerga-oinarrien edo likidagarrien murrizketak; zerga-tasa murriztuak; zerga guztietako kuota osoen, likidoen edo diferentzialen hobari eta kenkariak.

ZGAtik salbuetsita daude berariaz zerga zorraren ordainketari dagokionez konturako ordainketak, geroratzeak edo zatikatzeak ukitzen dituztenak, baita aurreko urteetako izaera negatiboko oinarrien konpentsazioak ere.

Zerga hobari guztiek lotuta daramaten "sarreren galera" deritzon zenbatesteko metodoa hartzen da eta hori definitzeko esan behar da zerga sarrerak murrizten diren zenbatekoa dela, eta horren balorazioa "kutxako irizpidea" erabiliz egiten da, edo sarreren galera hori gertatzen den unekoa.

Argi dagoen bezala ZGAn zerga-gastu bat sartzeko beharrezkoa da hori zenbatesteko aukerak emango dituen zerga iturri edo estatistikako iturriren bat egotea.

Kontuan hartu behar da urtean likidatzen diren zerga zuzen horietan, hala nola, PFEZn, Sozietateen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan, urtebeteko desfasea dagoela ZGAren denborazko erreferentziaren eta errentak edo mozkinak ateratzen diren ekitaldiaren artean. Horregatik arauen arloko berrikuntzak 2021. ekitaldiari buruzkoak dira, hau da ZGA 2022an eragina duten zuzeneko zergak ukitzen dituztenak.

2022ko Zerga Gastuen Aurrekontua egitean, ez da egiturazko aldaketarik gertatu zerga-gastuaren kalkuluetan eragina duten tributuen araudian, COVID-19 pandemiarekin lotutako neurrien funtsezko salbuespenarekin.

- La descripción de la metodología y las fuentes estadísticas utilizadas.

Se incluyen como gasto fiscal el conjunto de conceptos o parámetros impositivos que originan beneficios fiscales para los contribuyentes y que, por tanto, merman la capacidad recaudatoria de la Administración Tributaria. Estos elementos se articulan mediante exenciones, reducciones en las bases imponibles o liquidables, tipos impositivos reducidos, bonificaciones y deducciones de las cuotas íntegras, líquidas o diferenciales de los diversos tributos.

Se excluyen del PGF los conceptos que afectan exclusivamente a los pagos a cuenta, los aplazamientos o fraccionamientos del pago de la deuda tributaria, y las compensaciones de bases de signo negativo de años anteriores.

Se adopta el método de cuantificación de la "pérdida de ingresos" que conlleva todo beneficio fiscal definida como el importe en el cual se reducen los ingresos tributarios y su valoración se efectúa de acuerdo con el "criterio de caja" o momento en que se produce la merma de ingresos.

Por supuesto, la incorporación de un gasto fiscal al PGF está supeditada a la disponibilidad de alguna fuente fiscal o estadística que permita su cuantificación.

Hay que tener en cuenta que en los tributos directos que se liquidan anualmente, tales como IRPF, Impuesto sobre Sociedades, e Impuesto sobre Patrimonio, existe un desfase de un año entre la referencia temporal del PGF y el ejercicio en que se obtienen las rentas o los beneficios. Por ello las novedades normativas son las referidas al ejercicio 2021 que afectan a los tributos directos que tengan repercusión en el PGF 2022.

En la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales 2022, no se han producido cambios estructurales en la normativa de los diferentes tributos que tengan repercusión en los cálculos del gasto fiscal, con la excepción fundamental de-las medidas relacionadas con la Covid-19.

Horregatik, honako foru-dekretu arauemaileetan jasotako arauzko aldaketei egiten diegu erreferentzia:

– 11/2020 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 1ekoa, Covid-19rekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa.

– 3/2021 Foru Dekretu Arauemailea, otsailaren 23koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Aseguru-sarien gaineko Zergan eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifetan neurri gehigarriak ezartzeari buruzkoa.

Zerga-gastuaren kontzeptuetan eragina duten aldaketa horien zehaztasunak Sozietateen gaineko Zergari eta BEZari buruzko atalean emango dira.

Aurrekoaz gain, ZGA honetan aurreko urteetan hasitako irizpide metodologikoa mantendu da, hots, zerga-gastuaren zifrak aitortzaileen generoaren arabera lortzea, zerga-gastuaren baitako bi zerga pertsonalen kasuan: PFEZ eta Ondarearen gaineko Zerga.

Maila metodologikoetan bi zergetan zerga-gastua gizon eta emakumeen arabera egotzi da, aztertutako neurriek ukituak diren zergadunen generoari kasu eginda, zerga hobari guztietan ez egoteagatik gertatzen den kuota likidoaren gehikuntzak sexuen arabera banatzea kontuan hartuta.

Nabarmentzekoa da PFEZri dagokiola ebaluaturiko zerga-gastu guztien % 32,82, eta % 40,95eraino hazi da proportzio hori Sozietateen gaineko Zerga gehituz gero.

Laburbilduz, 2022rako gastu fiskaletarako zenbatetsi den kopurua 3.356 milioi eurokoa da guztira; kopuru horrek aurreko ekitaldikoaren aldean gora egin du, 299 milioi euro inguruko gehikuntza gertatu baita aurreko ekitaldiko zenbatespenekin alderatuta, hau da, ehuneko 9,8ko aldaketa. Zifren igoera hori zeharkako zergen

Por ello, nos referiremos a los cambios normativos recogidos en los siguientes Decretos Forales Normativos:

– Decreto Foral Normativo 11/2020, de 1 de diciembre, de medidas de prórroga y otras medidas urgentes relacionadas con la Covid-19.

– Decreto Foral Normativo 3/2021, de 23 de febrero, de medidas adicionales en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto sobre las Primas de Seguros y en las tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas.

El detalle de estos cambios que influyen en los conceptos de gasto fiscal se comenta en el apartado relativo al Impuesto sobre Sociedades, al IRPF y al IVA.

Adicionalmente, en este PGF se mantiene el criterio metodológico en años anteriores, cual es la obtención de las cifras del gasto fiscal según el género de los declarantes en dos de los tributos de carácter personal integrados en el mismo, como son el IRPF y el Impuesto sobre el Patrimonio.

Metodológicamente en ambos tributos se ha imputado el gasto fiscal por hombres y mujeres atendiendo al género de los contribuyentes afectados por las medidas analizadas teniendo en cuenta la distribución por sexo de los aumentos de cuota líquida que se producen por la no existencia de cada uno de los beneficios fiscales.

Resaltar que el 32,82% del total de gastos fiscales evaluados corresponden al IRPF, proporción que se incrementa hasta el 40,95% o si añadimos el Impuesto sobre Sociedades.

En definitiva, el importe estimado de los gastos fiscales para 2022, asciende a un total de 3.356 millones de euros, cifra que aumenta respecto a la del ejercicio anterior produciéndose un incremento de alrededor de 299 millones de euros respecto a las estimaciones del ejercicio anterior lo que supone una variación del 9,8 por ciento. Este

igoeratik eratortzen da, bereziki BEZean, Ondare eskualdaketen gaineko Zergan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, zenbait garraiobideren gaineko zergan eta fabrikazioko zerga berezietan, egungo egoera ekonomikoa eta kontsumoaren hazkunde-aurreikuspenak kontuan hartuta, zeina dokumentu honetan dagokion atalean zehaztuko baita. Era berean, areagotu egin da zuzeneko zergen I. kapitulutik datorren gastu fiskala, neurri batean osasun-larrialdiak kaltetutako jarduera ekonomikoa suspertze aldera onartu diren salbuespenezko zerga-neurrien ondorioz. Zerga-kontzeptuei dagokienez, aurreikusitako igoerarik handienak BEZean, Ondare eskualdaketen gaineko Zergan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan izan dira, eta bai Sozietateen gaineko Zergan ere.

Zerga-gastu guztiek sarrera teoriko guztiekiko duten partaidetzak eutsi egiten dio aurreko ekitaldien aldean, eta % 29 eta % 30 bitarteko mailetan kokatzen da.

Dokumentu honen amaieran erantsi den koadroan zerga-gastuen zergen araberako zenbatekoen banaketa ematen da eta, horien barruan, 2022 urterako dituzten osagai nagusienen arabera. Bi koadro erantsi dira PFEZ eta OZko subjektu pasiboen generoaren araberako zerga-gastuen egozketarekin eta sarrera teorikoen gaineko zerga-gastuaren banaketarekin.

I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Zerga-gastutzat jotzen diren PFEZko kontzeptuen multzoan hainbat salbuespen, errenta hobari, zerga-oinarriaren murrizketa eta kuotaren zenbait kenkari sartzen dira.

Funtsean, eutsi egiten zaie azken urteetan erabilitako irizpideei, ikuspegiari, informazio-iturriei eta kalkulu-prozedurei, salbu eta, jakina, zenbatespenen oinarriak diren datuak eguneratzeari.

Hala, honako kontzeptu-elementu hauek zenbatetsi dira zerga-gastutzat:

aumento de cifras se deriva del aumento en los impuestos indirectos, en particular en IVA, ITP y AJD, en el Impuesto sobre Determinados Medios de Transporte y en los Impuestos especiales de Fabricación, teniendo en cuenta la actual coyuntura económica y las expectativas de crecimiento del consumo, que se concretará en el apartado correspondiente de este documento. Asimismo, se ve incrementado además, en el gasto fiscal procedente del Capítulo I de impuestos directos, debido en parte a las medidas tributarias excepcionales aprobadas a fin de reactivar la actividad económica dañada por la emergencia sanitaria. Por conceptos tributarios, los mayores incrementos previstos se producen en IVA, ITP y AJD y en IS.

La participación del total gastos fiscales sobre el total de los ingresos teóricos se mantiene respecto a los últimos ejercicios, situándose en niveles entre el 29 y el 30 por ciento.

En el cuadro final que acompaña a este documento se recoge la distribución de las estimaciones de los gastos fiscales por tributos y, dentro de éstos, según sus principales componentes para el año 2022. Se agregan dos cuadros con la imputación de los gastos fiscales según el género de los sujetos pasivos en IRPF e IP y la distribución del gasto fiscal sobre los ingresos teóricos.

I. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

El conjunto de conceptos del IRPF que se considera que constituyen gastos fiscales está integrado por las exenciones, bonificaciones de rentas, reducciones de base imponible, y algunas deducciones en la cuota.

Se mantienen básicamente los criterios, enfoque, fuentes de información y procedimientos de cálculo que se han utilizado durante los últimos años a excepción de la actualización de los datos en que se basan las estimaciones.

Así, se cuantifican como gasto fiscal los siguientes elementos conceptuales:

- Zerga-oinarriaren murrizketak, adibidez lanagatiko hobaria, BGAE eta PPetara egiten diren ekarpenak eta zerga aitorpen bateratuagatiko murrizketa.

- Foru Arauaren 9. artikuluko salbuespenak, horien artean 190 ereduan L gakoarekin jasota dauden errenta salbuetsiak. Berrikuntza gisa, kalkuluan administrazio publikoek emandako diru-laguntza edo laguntza bereziengatiko salbuespenak sartu dira, Foru Aldundiaren abenduaren 1eko 11/2020 FDAren 9.1 artikuluan ezarritakoaren arabera; salbuespen horiek autonomoentzat dira, eta COVID-19 pandemiak eragindako osasun-krisiaren inguruan agintari eskudunek hartutako neurrien ondorioz jarduera eten, geldiarazi edo larriki kaltetu delako ezarri dira. Era berean, nabarmentzekoa da adingabearen jaiotzagatik eta zaintzagatik salbuetsitako prestazioa (amatasun-prestazioak eta aitatasun-prestazioak bateratzen dituen prestazioa) 4 astez luzatu dela 2021erako ama biologikoa ez den gurasoarentzat.

- Aurrezpenaren oinarriaren barneko dibidenduen zioz jasotako lehen 1.500 euroengatik zergak ez ordaintzeari dagokiona.

- Gehienez 40.000 euroko salbuespena 2021ean sortutako eta berariazko araudian zehazturiko Loteria Nazionaleko sarietatik eta ausazko zenbait jokotatik jasotako zenbatekoan.

- Salbuespena ohiko etxebizitzan eta aseguratutako biziarteko errentan berrinbertitzeagatik, bai eta 65 urtetik gorakoek eta mendekotasun larria edo mendekotasun handia duten pertsonek ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik salbuetsitako irabaziak ere, lehen aldiz sartzen direnak, horiek kuantifikatzeko datuak eskuartean izateagatik.

- Reducciones de la base imponible tales como la bonificación de trabajo, las aportaciones a EPSV y PP, y la reducción por tributación conjunta.

- Exenciones del artículo 9 de la Norma Foral entre ellas las rentas exentas que constan en el modelo 190 con clave L**.** Se incluye, como novedad en el cálculo, las exenciones en concepto de subvenciones o ayudas extraordinarias otorgadas por las Administraciones públicas, según lo establecido en el artículo 9. Uno del DFN 11/2020, de 1 de diciembre, a autónomos como consecuencia de la suspensión, paralización o grave afectación de su actividad a causa de las medidas adoptadas por las autoridades competentes en relación con la crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19. Asimismo, cabe destacar el incremento de 4 semanas de duración de la prestación exenta por nacimiento y cuidado del menor (prestación que unifica las prestaciones de maternidad y paternidad) para el progenitor distinto de la madre biológica, para el año 2021.

- La exención relativa a la no tributación de los primeros 1.500 euros percibidos en concepto de dividendos dentro de la base del ahorro.

- La exención hasta 40.000 euros en la percepción de los premios de Lotería Nacional y ciertos juegos de azar determinados en la normativa específica devengados en el año 2021.

- Exención por reinversión en vivienda habitual y en renta vitalicia asegurada, así como, las ganancias exentas por la transmisión de la vivienda habitual de mayores de 65 años y por personas en situación de dependencia severa o gran dependencia, que se incluyen por primera vez, al disponer de datos para su cuantificación.

- Kuotaren kenkariak: ohiko etxebizitzari dagozkionak. Ohiko etxebizitzan berrikuntza-lanak egiteagatiko aldi baterako kenkaria (Renove Etxea Plana), zeina Foru Aldundiak luzatu baitzuen 2021erako, dohaintzak, sindikatuentzako kuotak eta jarduera ekonomikoen sustapenarekin, inbertsioarekin eta berrikuntzarekin zerikusia dutenak sartzen dira, non mikroenpresetan eta ETE sortu berri edo berritzaileetan inbertitzeagatiko kenkaria mikroenpresetan inbertitzeagatiko aparteko kenkari berriarekin ordezten baita aldi baterako. 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez, eta, aldi berean, 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez luzatua, 2021erako, bai eta osasun-larrialdiaren ondoren tokiko merkataritza digitalizatzea bultzatzeko kenkaria ere.

Era berean, fakturazio-sistemak BATUZ proiektuaren barruan dagoen TicketBAI sistemara egokitzeko kenkaria jasotzen da. Sistema horrek gastu eta inbertsioen % 30eko kenkaria ezartzen du kuotan.

Atal hauetan jasota daude adierazitako guztiaren xehetasunak:

1. Zerga-gastua zerga-oinarrian

1.1. Salbuespenak

- Zenbait loteria sariren eta apustuen gaineko karga bereziari dagokion salbuespena. Zerga-gastua da, baina bere izaera dela-eta, erabat ausazkoa da. Estatuko ZGAn erabilitako datuen arabera kalkulatzen da. 2022rako 27 milioi euro ingurukoa da.

- 1.500 euroko salbuespena dibidenduen zioz

  Kasu honetan, PFEZren aitorpenetan ageri diren datu fiskaletatik abiatuz kalkulatu da, aurrezkiaren oinarriari dagozkion zerga-tasak aplikatuz, 2021eko PFEZn indarrean dagoen araudian bildutako tarteen eta tasen arabera.

- Deducciones de la Cuota: las relativas a la vivienda habitual, donde se incluye la deducción temporal por la realización de obras de renovación en la vivienda habitual (Plan Renove Etxea) prorrogada por DFN 11/2020, para el año 2021, los donativos, cuotas a sindicatos y aquellas relacionadas con la promoción de las actividades económicas, la inversión y la innovación, donde se sustituye temporalmente la deducción por inversión en microempresas y pymes de nueva o reciente creación o innovadoras por la nueva deducción extraordinaria por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas, aprobada por DFN 4/2020 y prorrogada a su vez, por el citado DFN 11/2020, para el año 2021, al igual que la deducción para el impulso de la digitalización del comercio local, tras la emergencia sanitaria COVID-19.

  Asimismo, se incluye la deducción de adaptación de los sistemas de facturación al sistema TicketBAI, integrado en el proyecto BATUZ, que establece una deducción en cuota de un 30 por 100 de los gastos e inversiones.

El detalle de todo lo expuesto se recoge en los apartados siguientes.

1. Gasto Fiscal en Base Imponible

1.1. Exenciones

- Exención en el gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas. Este es un gasto fiscal que por su naturaleza es totalmente aleatorio. Su cálculo se hace en función de los datos utilizados en el PGF del Estado. Para 2022 se cifra en alrededor de 27 millones de euros.

- Exención 1.500 euros por dividendos

  En este caso, se realiza su cálculo a partir de los datos fiscales contenidos en las declaraciones de IRPF, aplicando los tipos de gravamen correspondiente a la base de ahorro vigentes en IRPF 2021.

Aurkeztutako PFEZaren azken ekitaldietan, aitortutako dibidenduen zenbatekoa etengabe igo dela ikusten da, nahiz eta aurreko ekitaldian zuhurtziaz zenbatetsi, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteei (ABEE) atxikitako sozietateen ziurgabetasunaren eta dibidenduen banaketaren mugaketaren ondorioz. Hainbestez, 2021eko PFEZean aplikatu beharreko 1.500 euroko salbuespenaren zenbatekoa 19,6 milioikoa izango dela kalkulatu da.

En los últimos ejercicios de IRPF presentados se aprecia un incremento sostenido en la cuantía de los dividendos declarados, a pesar de la estimación prudente realizada en el ejercicio precedente como consecuencia de la incertidumbre y de la limitación en el reparto de dividendos de aquellas sociedades que se hubieran acogido a los ERTE. Por tanto, la cuantía de la exención de 1.500 euros aplicable en IRPF 2021, se estima en 19,6 millones.

- Ohiko etxebizitzan egindako berrinbertsioaren ziozko salbuespena

- Exención por reinversión en vivienda habitual

Ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabazien ziozko salbuespena zerga-gastuaren kasu bat izango da, besterentzearen zenbateko osoa edo zati bat etxebizitza berri bat erosteko berrinbertitzen denean.

La exención de las ganancias patrimoniales obtenidas en la transmisión de la vivienda habitual, cuando parte o el total del importe de enajenación se reinvierta en la adquisición de una nueva vivienda habitual constituye un supuesto de gasto fiscal.

2020ko PFEZn kalkulatuko den zenbatekoaren aurreikuspena egin da aurreko urteetako aitorpenetan kontsignatutako zenbatekoetan oinarrituz. Aurrezkiaren oinarrian zergapetze-faseetarako dauden zerga-tasetatik eratorritako batez besteko batek zehaztuko du kostua.

Sobre la base de los importes consignados en declaraciones de varios años anteriores y la actual coyuntura económica, se ha realizado una proyección del importe que se computará en IRPF 2021 y su coste vendrá determinado por la aplicación de un tipo medio de gravamen derivado de los existentes para los tramos de tributación en la base del ahorro.

2021erako jaitsiera aurreikusten da, eta, horrenbestez, gastu fiskala PFEZ 2021erako 14 milioi eurokoa izango da.

Para el ejercicio 2021 se prevé un descenso, por lo que el gasto fiscal se cifra para IRPF 2021 en 14 millones de euros.

Era berean, aurreko metodologia aplikatuz, Zerga Gastuen Aurrekontu honetarako Nobedade gisa, kuantifikatzeko datu aski baitaude, gastu fiskal gisa honako irabazi salbuetsi hauek sartzen dira:

Asimismo, aplicando la anterior metodología, como novedad para este PGF, al disponer de datos suficientes para su cuantificación, se incluye como gasto fiscal las siguientes ganancias exentas:

- 65 urtetik gorako zergadunek ondare-elementuak eskualdatzen dituztenean, eskualdatzearen bidez eskuratzen den zenbateko osoa sei hilabeteko epean haren alde aseguratutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen denean (0,3 milioi).

- Con ocasión de la transmisión de elementos patrimoniales por contribuyentes mayores de 65 años, cuando el importe total obtenido por la transmisión se destine en el plazo de seis meses a constituir una renta vitalicia asegurada a su favor (0,3 millones).

- 65 urtetik gorako pertsonek beren ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen dutenean (19,6 milioi euro, gutxi gorabehera).

- Mendekotasun larria edo mendekotasun handia duten pertsonek beren ohiko etxebizitza kostu bidez eskualdatzen dutenean (2,12 milioi).

- 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluko salbuespenak, 190 ereduan jasoak; lan pertsonalaren atxikipenei eta konturako ordainketei buruzko informazio-laburpena.

  Atal honen baitan, erabili beharreko datuak erakundeek aurkeztutako 190 eredutik aterako dira. Bertan jasota daude, besteak beste, zergapetutako errentatzat jotzen ez diren pertzepzioak, Foru Arauaren artikulu horretan ezarritakoari jarraituz. Nobedade gisa, COVID-19aren ondorioz autonomoentzako diru-laguntzak edo bestelako laguntzak etetearen, geldiaraztearen edo larriki lotzearen ondoriozko gastu fiskala sartzen da.

  Aplikatutako metodologia eredu hori aurkeztu dutenek kontsignatutako zenbatekoetan oinarritzen da, subjektu pasiboak bereiziz eta zergaren pean daudela onartuz, lan pertsonalaren etekinak diren heinean, arestion aipatu diren autonomoentzako diru-laguntzen eta bestelako laguntzen kasuan izan ezik, jarduera ekonomikoen etekin gisa zergapetzen baitira.

  Horrek zergaren zenbait alderdi tekniko kontuan hartu beharra dakar, esate baterako lanaren etekina, ekitaldiaren tarifa, kenkari orokorra eta kasu batzuetarako mendekotasunagatiko kenkaria edo errenta irregularretarako zehaztutako egozketaren ehunekoak aplikatzea.

  Elementu horiekin guztiekin zehazten da errenta mota horretako hartzaile bakoitzarentzako kuota likidoa, PFEZren

- Con ocasión de la transmisión onerosa de su vivienda habitual por personas mayores de 65 años, cuyo importe se estima en 19,6 millones de euros.

- Con ocasión de la transmisión onerosa de su vivienda habitual por personas en situación de dependencia severa o gran dependencia (2,12 millones).

- Exenciones del artículo 9 de la Norma Foral 13/2013 recogidas en el modelo 190, resumen informativo sobre retenciones de trabajo personal y pagos a cuenta.

  Dentro de este apartado, los datos a utilizar se obtendrán del modelo 190 presentado por las entidades en donde se recogen, entre otras, aquellas percepciones que no se consideran renta gravada, en virtud de lo establecido en el mencionado artículo de la Norma Foral. Como novedad, se incluye el gasto fiscal derivado de las subvenciones o ayudas a autónomos como consecuencia de la suspensión, paralización o grave afectación de su actividad por causa de la COVID-19.

  La metodología aplicada se basa en los importes consignados por los presentadores de dicho modelo, individualizando los sujetos pasivos y asumiendo su sujeción al impuesto como rendimientos de trabajo personal, excepto para las subvenciones y ayudas a autónomos, anteriormente señadas que se gravan como rendimientos de actividades económicas.

  Esto supone tener en cuenta ciertos aspectos técnicos del impuesto como la bonificación del trabajo, la tarifa del ejercicio, la deducción general, la deducción por dependencia en algunos casos o la aplicación de porcentajes de imputación definidos para las rentas irregulares.

  Con todos estos elementos se determina la cuota líquida del impuesto para cada perceptor de este tipo de rentas sin tener en

aitortzailea den edo ez kontuan hartu gabe. Adingabea jaiotzeagatiko eta zaintzeagatiko prestazioaren kasuan, kontuan hartu da zergapeko errenta moduan ez sartzeak zerga-bilketan izan duen kostua. 2021 ekitaldirako, aurretik aipatutako prestazioaren iraupenaren hazkundearen arabera zenbatetsi da. Kostua 15,1 milioi euro ingurukoa izango dela zenbatetsi da.

Garrantzia kuantitatiborik handiena duen kontzeptua baliaezintasunagatiko prestazioei dagokiena da, baliaezintasun hori iraunkorra erabatekoa, osoa zein larria izan, beren banakako zenbatekoengatik zein eragindako zergadunen kopuruagatik.

Salbuetsitako pertzepzio horietatik eratorritako eta sartu gabeko kuota likidoaren batura 103,5 milioi eurokoa da, hots, ia % 2,18ko igoera aurreko urtearekin alderatuta.

Dibidenduen ziozko salbuespena, Loteria sariei dagokiena eta kanpoko irabazien ziozkoa gehitzen badizkiogu, salbuespenengatiko 191,5 milioi euroko zerga-gastua izango genuke, PFEZrengatiko guztizko zerga-gastuaren % 17 baino gehiago.

1.2. Zerga-oinarriaren murrizketak

Kalkuluaren metodologia aurreko urteetako bera da, eta funtsean mikrosimulazioko sistema aplikatzen da PFEZ zergadunen kolektiboaren banan-banako informazioa dakarten datu basearen gainean.

Datu fiskalak 2021eko ekitaldi fiskalera arte proiektatzen dira, eskura dauden datuen eta egiten ari den aurrekontuaren arteko denbora-desfasea zuzentzeko adierazle demografikoak eta ekonomikoak erabiliz.

cuenta si se trata de un presentador de IRPF o no. En el caso de la prestación por nacimiento y cuidado del menor se ha tenido en cuenta el coste en recaudación que ha supuesto su no inclusión como renta gravada. Para el ejercicio 2021 se estima en función del incremento de la duración de la prestación anteriormente señalado. Su coste se estima en unos 15,1 millones de euros.

El concepto con más relevancia cuantitativa es el referido a las prestaciones por incapacidad ya sea permanente total, absoluta o gran invalidez tanto por sus cuantías individualizadas como por el número de contribuyentes afectados.

El sumatorio de la cuota líquida no ingresada derivada del total de percepciones exentas se cifra en 103,5 millones de euros, lo que representa un incremento de casi el 2,18% respecto al año anterior.

Si a ello le añadimos las exenciones por dividendos, la relativa a los premios de Lotería y la que se deriva de las ganancias exentas, obtendríamos un gasto fiscal por exenciones es de alrededor 191,5 millones de euros, más del 17% del total gasto fiscal por IRPF.

1.2. Reducciones en la base imponible

La metodología de cálculo no varía respecto a años anteriores, consistiendo básicamente en la aplicación de un sistema de micro simulación sobre la base de datos que contienen información individualizada del colectivo de contribuyentes de IRPF del ejercicio precedente.

Los datos fiscales se proyectan hasta el ejercicio fiscal 2021 mediante el uso de indicadores demográficos y económicos que corrijan el desfase temporal entre los datos disponibles y el presupuesto que se está elaborando.

Ondoren, mikrosimulazioa egiten da, batera, dagozkion pizgarriekin eta pizgarririk gabe, eta zerga-gastu bakoitza kalkulatzen da bi egoeretan, hots, zerga-pizgarriarekin eta pizgarririk gabe, lortutako kuota likidoen diferentziaren bidez.

Horrela, lanaren ziozko hobariari, gizarte aurreikuspeneko planetara egindako ekarpenei eta baterako zerga-ordainketagatiko murriztapenari buruzko zerga-gastuak zenbatesten dira.

Baterako zerga ordainketaren ondoriozko murrizketari dagokionez, portzentaje bat aplikatuko da baterako zerga ordainketaren ondorioz zerga-oinarria murrizten ez dela simulatzean ateratako zerga-gastuaren emaitzari.

Adierazi den portzentaje horren helburua gertatzen den eragina arintzea da, hau da, zerga-ordainketa bateratuak egitearen duen tributazio indibidualarekin erkatuta gertatzen den errenten metatzeagatik.

Azken ekitaldietan, metatze-efektu hori murrizteko kalkulu-metodologian erabiltzen den koefizientea murriztu da, zeren eta ia erabateko nagusitasuna baitute errenten jasotzaile bakarreko baterako aitorpenek. Kontzeptu horri dagokion zerga-gastua 101,5 milioian zenbatetsi da.

BGAE eta PPetarako ekarpenei dagokienez, horien zergapetze-sisteman izandako arau-aldaketek 2014ko eta 2015eko PFEZri egindako ekarpenen jaitsiera nabarmena eragin zuten.

Horrezaz gainera, aurreko Zerga Gastuen Aurrekontuan egindako estimazio zuhurra dela eta, 2022ko Zerga Gastuen Aurrekontuari dagokionez, zenbatekoa nabarmen handituko dela kalkulatu da, eta, horren ondorioz, 123,3 milioiko gastu fiskala zenbatetsi da, aurreko aurrekontuarekin alderatuta ia % 20ko igoerarekin.

A continuación, se efectúa la micro simulación de manera conjunta con y sin los incentivos correspondientes, y se calcula cada uno de los gastos fiscales mediante la diferencia de las cuotas líquidas obtenidas en las dos situaciones, con el incentivo fiscal y sin él.

De esta forma se estiman los gastos fiscales relativos a la bonificación de trabajo, las aportaciones a sistemas de previsión social y la reducción por tributación conjunta.

En cuanto a la reducción por tributación conjunta, se aplica un porcentaje reductor sobre la cuantía del gasto fiscal obtenido al simular la no existencia de la reducción en base imponible por tributación conjunta.

Este porcentaje tiene como finalidad paliar el efecto que se produce como consecuencia de la acumulación de rentas que conlleva la tributación conjunta, en comparación con la tributación individual.

En los últimos ejercicios, se ha reducido el coeficiente que se aplica en la metodología de cálculo para paliar este efecto acumulativo ya que el predominio de las declaraciones conjuntas con un solo perceptor de rentas es casi total. El gasto fiscal por este concepto se estima en 101,5 millones.

En el caso de las Aportaciones a Sistemas de Previsión Social, si bien los cambios normativos acontecidos en su tributación se plasmaron en un descenso sustancial de las aportaciones realizadas en IRPF 2014 y 2015, en los ejercicios siguientes se observa un cambio de tendencia, con un incremento en la cuantía de las aportaciones. Además, debido a la prudente estimación en el anterior PGF, para el PGF 2022 se estima un incremento sustancial del importe, lo que nos lleva a estimar un gasto fiscal de 123,3 millones con un aumento que alcanza casi el 20% respecto al presupuesto precedente.

PFEZaren azken kanpainaren inguruko datuak ikusita, zeintzuetan laneko errenta garbi handiagoa ikus daitekeen, aplikatutako laneko hobariaren zenbateko handiagoa duena, eta, beraz, zeintzuetan aurreko urteko joera berreskuratu zen, 2021eko zerga-gastua gorantz zenbatetsi da, eta ia 443 milioitan kalkulatu da, hau da, % 3ko hazkundea.

Zehazki, 2022ko ekitaldirako PFEZaren zerga-oinarrian egindako gastu fiskala, oinarriaren murrizketen zenbatespenak barne hartzen dituena, 667,6 milioi eurokoa da. Zenbateko hori aurreko urteko Zerga Gastuen Aurrekontuarekin alderatuta handitu da, ia ehuneko 6ko gehikuntzarekin.

A la vista de los datos relativos a la última campaña de IRPF que muestran un mayor rendimiento neto de trabajo con un mayor importe de la bonificación del trabajo aplicada, siguiendo la tendencia de años anteriores, se ha realizado una estimación del gasto fiscal para IRPF 2021 al alza, que se cifra en casi 443 millones con un incremento del 3%.

En concreto, el gasto fiscal en la base imponible del IRPF del ejercicio 2021 para el Presupuesto 2022, que incluye las estimaciones de reducciones de la base, se cifra en 667,6 millones de euros, importe que aumenta respecto al PGF del año anterior, con un incremento de casi el 6 por ciento.

2. Kuotaren kenkariak

Kuotako kenkari jakin batzuei dagokien zerga-gastuak zenbatesteko, 2019 eta 2020 ekitaldietako aitorpenetan jasotako zenbatekoak proiektatu egiten dira aurrekontu-urtean, 2022an, aurkeztuko direnetarako, honako hauek kontuan hartuta:

- Zerga-gastua osatzen duen kenkari bakoitzak aurreko urteetan izandako bilakaera.
- Kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu gabeko kenkarien eragina.
- COVID-19 pandemiaren testuinguruan jarduera ekonomikoa sustatzeko egoeraren arabera luzatutako kenkarien aplikazioa.

2021eko PFEZerako kuota-kenkariei buruzko aurreikuspenetan eskuratutako emaitzei dagokienez, kontuan hartuta aurrean dugun krisi sanitario eta ekonomikoa, honako hau nabarmendu behar da.

- Ohiko etxebizitza eskuratzeagatiko kenkarian, aurreko urteetan egindako aitorpenetan ikusitako datuak oinarri hartuta egiten dira 2021eko ekitaldirako

2. Deducciones de la cuota

Los gastos fiscales referentes a ciertas deducciones en cuota los estimamos mediante una proyección de los importes obtenidos en las declaraciones del ejercicio 2019 y 2020 a aquellas que se presentarán en el año presupuestado, 2022, teniendo en cuenta:

- La evolución experimentada por cada deducción que constituye gasto fiscal en años anteriores.
- El efecto de las deducciones no practicadas por insuficiencia de cuota.
- La aplicación de las deducciones prorrogadas coyunturalmente para incentivar la actividad económica en el contexto de la pandemia COVID-19.

Respecto a los resultados obtenidos en las previsiones sobre las deducciones en cuota para IRPF 2021, hay que destacar que:

- En el caso de la deducción por adquisición de vivienda habitual la estimación para el ejercicio 2021 realizada en base a los datos observados en las declaraciones de

zenbatespenak, eta, egungo egoera ekonomikoan hein handiagoan, zenbatetsitako zerga-gastua 163 milioikoa da.

- Ohiko etxebizitzan berrikuntza-lanak egiteagatiko kenkari luzatua (Renove Etxea Plana), hasieran kopuru handiagoa izatekoa zena, 2020ko PFEZetik eskuratutako datuak ikusita, azkenean 1,8 milioi eurokoa izango da 2021eko ekitaldirako.

- Etxebizitzaren konturako ekarpenengatiko kenkariaren zenbatekoa handitzea aurreikusten da, goranzko joerari jarraituz. Hori dela eta, ia 10,2 milioikoa da 2021 PFEZerako.

- Halaber, ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkariak gora egingo duela kalkulatzen da, aurreko urteetako goranzko joera berreskuratuz, eta, ondorioz, haren zenbatekoa 45 milioi ingurukoa izango dela.

- Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkarien gaineko atalean bildutako zerga-gastua osatzen duen kuotaren gainerako kenkariak, inbertsioaren pizgarriei eta jarduera ekonomikoen eta berrikuntzaren sustapenera xedatzen diren enplegurako pizgarriei dagozkionak, garrantzi gutxikoak dira banaka kontsideratuta, baina termino agregatuetan, dagoeneko ia 2,3 milioiko kenkariak dakartzate. Multzo honetan sartzen dugu mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatiko aparteko kenkaria, 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartua eta 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez 2021eko ekitaldirako luzatua, PFEZari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluko kenkaria ordezten duena, sortu berri diren edo sortu berri diren mikroenpresa eta ETEetan inbertitzeagatik.

ejercicios anteriores, asciende a 163 millones.

- La prorrogada deducción por realización de obras de renovación en la vivienda habitual (Plan Renove Etxea), inicialmente prevista en mayor cuantía, a la vista de los datos obtenidos de IRPF 2020, se estima finalmente para el ejercicio 2021 en 1,8 millones de euros.

- Se prevé un incremento en la cuantía de la deducción por aportaciones a cuenta vivienda siguiendo la tendencia creciente. Se cifra, por ello en casi 10,2 millones para IRPF 2021.

- Asimismo, se estima un incremento en la deducción por alquiler de la vivienda habitual, recuperando la tendencia creciente de años anteriores, lo que nos lleva a estimar su importe en alrededor de 45 millones.

- Las demás deducciones de la cuota que constituyen gasto fiscal englobadas en el apartado de deducciones por incentivos a la inversión y al empleo destinadas al fomento de las actividades económicas y de la innovación tienen importes de poca relevancia individualmente consideradas, pero en términos agregados ya se estima un importe de casi 2,3 millones. En este grupo incluimos la deducción extraordinaria por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas aprobada por DFN 4/2020 y prorrogada por DFN 11/2020 para el ejercicio 2021, que sustituye a la deducción del art. 90 de la NF de IRPF por inversión en microempresas y pymes de nueva o reciente creación.

- Dohaintzei, sindikatuentzako kuotei eta bestelakoei dagozkien gainerako kenkariek egonkor eusten diote, eta haien zenbatekoa, orotara, ia 20,2 milioi euro da.

Arestian esandako guztiagatik, 242,4 milioi euroko guztizko zerga-gastua zenbatetsi da PFEZren kuota osoaren kenkariengatik, hots, % 0,84ko igoera aurreko ZGAren aldean. Hala, guztizko horren % 91 inguru ohiko etxebizitza erosi eta alokatzearen eta etxebizitza-kontuaren ziozko kenkariei dagokie.

2021 PFEZari dagozkion 2022ko ZGArako zenbatetsitako zerga-gastuen zenbatekoak batuz gero, emaitza 1.101,45 milioi eurokoa da, hau da, 70,28 milioiko murrizketa absolutua, eta % 6,8koa ia, aurreko ZGAko aurrekontuko zenbatekoarekin alderatuta.

Igoera hori gehien bultzatu duten zerga-gastuaren kontzeptuak, oinarriko murrizketez gain, neurri handiagoan, honako hauek izan dira: gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen ondoriozko salbuespenak, eta, zehazki, kenkariei dagokienez, alokairuari, ohiko etxebizitza erosteari eta etxebizitzaren kontura egindako ekarpenei dagozkienak. Hori guztia 2020ko ekitaldiko zerga-gastuaren estimazio zuhurrak eragin du.

Guztizko hori salbuespenen, zerga-oinarriaren eta kuotarako kenkariei dagozkienen artean banatuta, % 17,4 % 60,6 eta % 22 geratuko litzateke, hurrenez hurren. Txosten honen amaieran ageri den taulan ageri da banaketa hori.

Guztira, zerga-sarrera teorikoen, hots, zerga-gasturik egongo ez balitz bilduko liratekeenen, % 25 dira, eta aurrekontuaren zenbateko guztiaren % 32,8. Guztira, ia % 6,8 murriztu dira aurreko ekitaldiko ZGArekin alderatuta.

- El resto de las deducciones relativas a donativos, cuotas a sindicatos y otras se incrementan y su importe total se cifra en casi 20,2 millones de euros.

Por todo lo comentado, se ha estimado un total de gasto fiscal por deducciones de la cuota íntegra en IRPF de 242,4 millones, lo que supone un aumento del 0,84% con respeto al PGF anterior, correspondiendo a las deducciones por vivienda habitual cerca del 91% de ese total.

La agregación de los importes de los gastos fiscales estimados para el PGF 2022 correspondientes a IRPF 2021, conduce a una cifra total de 1.101,45 millones de euros, lo que supone un incremento absoluto de 70,28 millones y relativo de casi el 6,8%, respecto a la cantidad presupuestada en el PGF anterior.

Los conceptos de gasto fiscal que en mayor cuantía han impulsado este ascenso han sido en mayor medida las exenciones, además de las reducciones en base, más concretamente por aportaciones a sistemas de previsión social y, en relación con las deducciones, las relativas al alquiler, adquisición de vivienda habitual y aportaciones a cuenta vivienda, todo ello motivado por la prudente estimación del gasto fiscal del ejercicio 2020.

La distribución de dicho monto total entre los conceptos de exenciones, base imponible y los relativos a deducciones en la cuota se reparte al 17,4%, 60,6% y 22% respectivamente y se recogen en el cuadro que figura al final de este informe.

En conjunto, suponen el 25% sobre los ingresos fiscales teóricos, definidos éstos como la recaudación que se obtendría sin la existencia de los gastos fiscales y un 32,8% sobre el importe total del Presupuesto, con un aumento de un 6,8 por ciento respecto al PGF del ejercicio anterior.

II. Sozietateen gaineko Zerga

Arestion aipatu den legez, abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemaileak, COVID-19 pandemiarekin loturik dauden luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoak, maiatzaren 5eko 4/2020 Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako zenbait neurri luzatu ditu, Sozietateen gaineko Zergan eragina dutenak. Gastu fiskalaren estimazioari dagokionez, honako hauek dira:

- Mikroenpresetako, enpresa txikietako edo ertainetako inbertsioagatiko ezohiko kenkari berria.
- Enplegua sortzeagatiko kenkariaren muga handitzea.
- 2021ean eskuratutako ibilgetu materialeko elementuen ezohiko amortizazio azeleratua.

Hori guztia oinarri hartuta, hauxe ondoriozta daiteke: ez direla aldatu SZn zerga-gastuak diren kontzeptuak, baina kontuan hartu behar dira aipatutako zerga-gastuaren partidak, lehen aldiz 2021ean agertu direnak. Oro har, arau-aldaketek eragina dute zenbatekoak kalkulatzean, baina ez definitzean.

SZn egon dauden zerga-gastuen barruan sartzen dira zerga egitatean jarduten duten eta kontabilitateko emaitza zuzentzen duten pizgarrien multzo bat. Hain zuzen ere, zenbait murrizpen ezarri dira likidazio-oinarrian jarduera ekonomikoa eta enpresen kapitalizazioa sustatzeko, karga-tasa gutxituen eta kuota osoa gutxitzen duten kenkari batzuen aplikazioagatik.

Hala, zerga-gastuaren kontzeptu hauek zehaztu, zenbatu eta sartu dira SZn:

1. Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren doikuntzak:
   - Zuzenketak gastuen arloan

II. Impuesto sobre Sociedades

Como se ha mencionado con anterioridad, el Decreto Foral Normativo 11/2020, de 1 de diciembre, de medidas de prórroga y otras medidas urgentes relacionadas con la COVID-19, ha prorrogado determinadas medidas aprobadas por el DFN 4/2020, de 5 de mayo, que afectan al Impuesto sobre Sociedades. A efectos de la estimación del gasto fiscal son las siguientes:

- La deducción extraordinaria por inversiones en micro, pequeñas o medianas empresas.
- La elevación del límite de la deducción por creación de empleo.
- Amortización acelerada extraordinaria de los elementos del inmovilizado material que se adquieran en 2021.

En base a lo anterior, se puede concluir que no varían los conceptos que constituyen gasto fiscal en el IS, aunque sí que hay que tener en cuenta las partidas de gasto fiscal mencionadas que concurren en el 2021. En términos generales, los cambios normativos influyen en el cálculo de los importes, pero no en su definición.

Por tanto, los gastos fiscales existentes en el IS están compuestos por un conjunto de ajustes que corrigen el resultado contable y actúan en la base imponible, por el establecimiento de ciertas reducciones en la base liquidable para el fomento de la actividad económica y la capitalización de las empresas, por la aplicación de tipos de gravamen reducidos y por una serie de deducciones que minoran la cuota íntegra.

Así, para este ejercicio se definen, se cuantifican y se incorporan los siguientes conceptos de gasto fiscal en el IS:

1. Ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias:
   - Correcciones en materia de gastos

- Zuzenketak sarreren arloan

2. Zuzenketak zerga-oinarrian hala nola mikroenpresentzako ezarritako konpentsazioa eta erreserba bereziak egoteari dagozkionak.

3. Zerga-tasa desberdinak

4. Kenkariak

Metodologia

Sozietateen gaineko Zergaren arloko zerga-gastuen zenbatespena egitea erraztearen ondoreetarako bakarrik hartzen dira aintzat berariaz foru arautegia aplikatzen duten oinarri likidagarri positibodun sozietateak, horiek direlako kuota eragingarri positiboa sortzen dutenak, beti ere Bizkaian egiten dituzten eragiketen bolumena kontuan hartuta.

Metodologiaren arloan, 2022ko ZGAn, 2021eko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, aurreko urteetako Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenetan islatu dira zerga-kostu gisa lorturiko balio errealak, azterturikoaren antzekotzat jo daitezkeenak arlo ekonomikotik, betiere 2021eko ekitaldirako aplika daitezkeen aldaketak sartuta.

Zerga hobariak eragiten dituzten eta zenbatesteko modukoak diren zergako elementuak jarraian adierazten diren hauek dira:

1.- Kontabilitatez kanpoko doikuntzak

Kontabilitatez Kanpoko Doikuntzen ziozko zerga-gastua, guztira, 91,1 milioi euroan zenbatu da; sarreretako zuzenketei nahiz gastuetan eginikoei dagozkie.

- Correcciones en materia de ingresos

2. Correcciones en la base imponible, tales como la compensación establecida para las microempresas y las relativas a la existencia de reservas especiales.

3. Tipos impositivos especiales.

4. Deducciones de la cuota.

Metodología

Para facilitar la realización de la estimación de los gastos fiscales del Impuesto sobre Sociedades se tienen en cuenta únicamente las sociedades con base liquidable positiva ya que son las que generan cuota efectiva positiva, que aplican exclusivamente normativa foral y teniendo en cuenta el porcentaje de volumen de operaciones en Bizkaia.

En el terreno metodológico, para el PGF 2022 relativo al Impuesto sobre Sociedades 2021, se proyectan los valores reales obtenidos como coste fiscal en las declaraciones del Impuesto sobre Sociedades de años anteriores que se puedan considerar económicamente similares al analizado y con las modificaciones normativas aplicables para el ejercicio 2021.

Los elementos del impuesto que generan beneficios fiscales y son susceptibles de cuantificación para este PGF en términos homogéneos son los enumerados a continuación:

1.- Ajustes extracontables

El total gasto fiscal por Ajustes Extracontables se cuantifica en 91,1 millones de euros, correspondiendo tanto a correcciones en los ingresos como en los gastos.

Hala, gastuen zuzenketari dagokionez, Finantza Merkataritzako Funtsaren zuzkiduragatiko doikuntza negatiboaren kontzeptua 43,5 milioi eurotan kuantifikatzen da, eta aurreko urtearekin alderatuta nabarmen handitzen da, doikuntza horretan zenbateko handiak izan direlako 2020ko ekitaldian, eta doikuntzaren izaera dela eta, horiek jarraitu egingo dutelako 2021eko ekitaldian.

Así, en materia de corrección de gastos, el concepto de Ajuste negativo por la dotación del Fondo de Comercio Financiero se cuantifica en 43,5 millones y supone un incremento sustancial respecto al año anterior como consecuencia de importes considerables en este ajuste en el ejercicio 2020, y que por la propia naturaleza del ajuste continuarán en el ejercicio 2021.

Gastuak zuzentzeko kategoria horretan sartuko lirateke amortizazio libre eta azeleratuagatiko doikuntzak, zeinak barne hartzen baitu 11/2020 Foru Dekretu Arauemaileak 2021erako aldi baterako luzatutako ezohiko amortizazio azeleratua; amortizazio hori, 2020ko ekitaldian oso esanguratsua izan ez denez, gainerako amortizazio libre eta bizkorrekin indargabetzen da, zeinen doikuntza positiboak negatiboak baino handiagoak izan baitira. Horregatik, ez da zenbatesten zenbatekorik Gastu Arrunten Aurrekontua honetarako, azken 2 ekitaldietan ez bezala.

En esta categoría de corrección de gastos entrarían los ajustes por amortización libre y acelerada que incluye la amortización acelerada extraordinaria prorrogada temporalmente por el DFN 11/2020 para 2021, que al no haber sido muy significativa en el ejercicio 2020 se contrarresta con el resto de amortizaciones libre y acelerada, cuyos ajustes positivos han sido superiores a los negativos, por ello no se estima importe alguno para este PGF, a diferencia de los 2 últimos ejercicios.

Era berean, aurreko ekitaldian bezala, 2021erako mikroenpresetan eta ETEetan kaudimengabeziengatiko doikuntzaren gastu fiskalik ere ez da zenbatetsi behar.

Asimismo, al igual que el ejercicio anterior, tampoco procede estimar gasto fiscal alguno para 2021 del Ajuste por Insolvencias en microempresas y PYMES.

Era berean, ez da egokia 2021erako gastu fiskala kalkulatzea, meatzaritza-jarduerak eta hidrokarburoak esploratzeko, ikertzeko eta ustiatzeko jarduerak agortzeko faktore gisa doitzeagatik, aurreko ekitaldian ez bezala.

Tampoco procede estimar gasto fiscal para 2021 por el ajuste en concepto de factor de agotamiento de las actividades de minería y actividades de exploración, investigación, y explotación de hidrocarburos, a diferencia del ejercicio anterior.

11/2013 FAren 32.5. artikuluko kasuen ondoriozko doikuntza negatiboa zenbatetsi da, gutxi gorabehera 10,5 milioi eurokoa.

Se cuantifica un ajuste negativo en términos de cuota derivado de los supuestos del artículo 32.5 de la NF 11/2013 que se estima en 10,5 millones de euros.

Sarreren zuzenketei dagokienez, zerga-gastu gisa zenbatu dira kontabilitate emaitzako doikuntza hauek:

En el caso de las correcciones de ingresos, se han cuantificado los siguientes ajustes al resultado contable como gasto fiscal:

- Jabetza intelektualak edo industrialak eragindako sarrerak murriztearen ziozko doikuntza: zergaren zerga-oinarrian

- Ajuste por Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial, que consiste en aplicar una

murriztapena aplikatzean datza, konpainiaren jabetza intelektual edo industrialaren ustiapenaren ondoriozkoa. Patent Box deritzon araubidea da. Aztertutako datuak ikusita, zenbatetsi da 2021ean 20,9 milioikoa izango dela, aurreko urtean baino gehiago, zuhurtasunez jokatu baitzen.

reducción en la base imponible del impuesto, derivada de la explotación de la propiedad intelectual o industrial de la entidad. Es el denominado régimen de Patent Box**.** A la vista de los datos analizados, se estima en 20,9 millones para 2021.

– Zati Batez Salbuetsitako Erakundeek aplikaturiko doikuntza negatiboa, baina zuhur jokatzen da zenbatespena egitean, 5,8 milioi eurokoa. Erakunde horiek beren sozietate helburuaren inguruan lorturiko zenbait errentaren ziozko salbuespenari dagozkio.

– Ajuste negativo aplicado por las Entidades Parcialmente Exentas, para el cual se realiza una estimación que se cifra en 5,8 millones de euros. Se refiere a la exención de determinadas rentas obtenidas por estas entidades relacionadas con su objeto social.

– Tokiko zerbitzu publikoak ematearen ziozko salbuespena, % 100eko salbuespenean gauzatzen dena, tokiko zerbitzu publikoak ematen dituzten erakundeek eskuratu dituzten errentekiko. Horrenbestez, ia 44 mila euroko aurrekontua egin da.

– Exención por la prestación de servicios públicos locales que se materializa en la exención del 100% respecto a las rentas obtenidas por aquellas entidades que presten servicios públicos locales. Se presupuesta en casi 44 mil euros.

– Higiezinen errentamenduaren gaineko jarduera gaitua duten erakundeentzako doikuntza negatiboak murriztapena dakar errentamenduen ondoriozko errentetarako zerga-oinarrian: 525 milioi euroko zenbatespena egin da 2021erako.

– El ajuste negativo para las Entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles supone una reducción de la base imponible para las rentas procedentes de los arrendamientos y se cuantifica para 2021 en 525 mil euros.

– Ezohiko etekinen berrinbertsioen salbuespenaren ziozko doikuntzak pisu espezifiko nabarmena du zerga-ekitaldietan, 2021erako diru-sarreren doikuntzen % 24. Nabarmendu beharra dago zerga-gastua nabarmen igo dela, soilik bi eragiketa ezohikoren ondorioz; horregatik, zenbatespen zuhurra egin da, aurreko ekitaldikoa bezalakoa, 8,9 milioi eurokoa 2022 ZGArako.

– El ajuste por Exención por reinversión de beneficios extraordinarios presenta a lo largo de los ejercicios fiscales un peso específico considerable, y para 2021 asciende a casi el 24% del total de ajustes en materia de ingresos. Se opta por una estimación prudente, al igual que en el ejercicio anterior, de 8,9 millones de euros para el PGF 2022.

Doikuntza horrek gorabeherak izan ditu aurreko ekitaldi guztietan zehar eta hori horrela da kontabilitateko emaitzaren doikuntza honen jatorria diren ondare eskualdaketen izaeragatik beragatik, eskualdaketa horiek abagune ekonomikoari

Este ajuste presenta altibajos a lo largo de todos los ejercicios precedentes y ello por la propia naturaleza de las transmisiones patrimoniales que son el origen de este ajuste al resultado contable, las cuales se hallan expuestas a la coyuntura económica

lotuta daudelako eta enpresen beharrizan finantzario eta erabaki estrategikoei lotuta daudelako.

– Horrez gain, ZGA honetarako partaidetza-maileguak emateagatiko errenten doikuntza sartu da, enpresa-proiektu berriak garatzea sustatzeko diseinatutakoa. Kalkuluen arabera, gutxieneko kopurua 14.000 eurokoa da.

– Azkenik, itsasoko enpresek Tonnage Tax araubidean buruturiko doikuntza ia milioi bat euroan zenbatetsi da 2021. urteko SZrako, azken bi ekitaldietako aitorpenetan bildutako datuak ikusita. Halako doikuntza gertatzen da horrelako erakundeek zerga-oinarriaren zati bat legez ezarritako prozedura erabiliz zehaztea hautatzen dutenean, baina ez itsasontzien tona kopuruaren arabera, benetako errentaren arabera baizik.

Hainbestez, kontabilitatetik kanpoko doikuntzen arloan, estimazio osoa nabarmen handitu da aurreko urteko zerga-gastuen aurrekontuaren zenbatespen osoarekiko, batez ere lehen aipatutako Finantza Merkataritzako Funtsaren doikuntzaren gehikuntzaren ondorioz, ehuneko 78,2ko igoerarekin.

y a las necesidades financieras y las decisiones estratégicas de las empresas.

– Asimismo, se incluye para este PGF el ajuste por Rentas por concesión de préstamos participativos, diseñado para fomentar el desarrollo de nuevos proyectos empresariales, que se estima en una cantidad mínima que asciende a 14.000 euros.

– Por último, el ajuste llevado a cabo por las empresas marítimas por el Régimen de Tonnage Tax se estima para el IS 2021 en casi 1 millón de euros a la vista de los datos recabados en las declaraciones de los dos últimos ejercicios. Se produce cuando este tipo de entidades opta por determinar parte de la base imponible mediante un procedimiento establecido legalmente en función del tonelaje de los buques en lugar de hacerlo en función de la renta real.

Por tanto, en materia de ajustes extracontables, la estimación total se ha incrementado sustancialmente respecto a la estimación total del PGF del año anterior motivado principalmente por el incremento del ajuste del Fondo de Comercio Financiero anteriormente señalado, con un ascenso del 78,2 por ciento.

2.- Zerga-oinarriaren zuzenketak

2.1. Ehuneko 10eko murriztapena mikroenpresentzat.

SZren abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko, martxoaren 21eko 2/2018 FAk aldatutakoko, 32. artikuluan, honako posibilitate hau biltzen da mikroenpresentzat: beren zerga-oinarritik kengarritzat hartu ahal izatea zerga-oinarriaren % 10aren zenbateko baliokidea, tamainaren ziozko konpentsazio gisa.

2.- Correcciones a la base imponible

2.1. Reducción del 10 por ciento para las Microempresas.

El artículo 32.4 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del IS, modificado por la NF 2/2018, de 21 de marzo, recoge la posibilidad para las microempresas de poder considerar deducible de su base imponible un importe equivalente al 10 por 100 de su base imponible positiva en concepto de compensación por su tamaño

Egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, kuotaren kostua ia 6,2 milioikoa izango dela kalkulatu da, aurreko ekitaldikoa baino handiagoa, ekonomiaren susperraldiaren ondorioz.

Araudi berriak (2014tik hasita izango ditu ondorioak) sartu dituen eta zergaren zerga-oinarrian eragina duten erreserba bereziei buruzkoak dira oinarriko hurrengo zuzenketak, eta horiei dagokie zenbatespen hau, 2020an izandako emaitzak erreferentziatzat hartuta.

Zenbatespena kuotari dagokionez egin da, hau da, tasa orokorra (% 24) aplikatuz erreserba horretarako aurreikusitako zenbatekoari.

Teniendo en cuenta la actual coyuntura económica, se estima su coste en términos de cuota en casi 6,2 millones, importe superior al ejercicio anterior como consecuencia de la previsible recuperación económica.

Las siguientes correcciones, en materia de aplicación del resultado, son las relativas a las reservas especiales, que afectan a la base imponible del impuesto, introducidas en la normativa con efectos a partir de 2014 y cuya cuantificación se incluye tomando como referencia los resultados registrados en el ejercicio 2020.

La estimación se realiza en términos de cuota, es decir aplicando el tipo general del (24%) al importe previsto para estas reservas.

2.2. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko erreserba

11/2013 Foru Arauko 51. artikuluan, zerga-oinarriaren murriztapena biltzen da, ondare garbiaren gehikuntzako zenbatekoaren % 10aren kantitate baliokideari dagokiona eta aurreko ekitaldiarekiko zerga-ondorioak dituena.

Kontzeptu horrengatiko gastu Kontzeptu horrengatiko gastu fiskala murriztu egin da 2020an, eta, beraz, haren zenbatekoa 4 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.

2.2. Reserva para fomentar la capitalización empresarial

El artículo 51 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible de una cantidad equivalente al 10 por 100 del importe del incremento de su patrimonio neto a efectos fiscales respecto al ejercicio anterior.

El gasto fiscal por este concepto disminuye en 2020 y, por tanto, su importe se estima en 4 millones.

2.3. Etekinak berdintzeko erreserba berezia

11/2013 FAko 52. artikuluan, kontabilitate emaitza positiboaren zenbatekoari dagokion zerga-oinarriaren murriztapena biltzen da, baldin eta etekinak berdintzeko erreserba berezirako baliatzen bada, betiere, gehienez, libreki balia dezaketen emaitza horren zatiaren % 10 izango dena.

Ez dago kontzeptu horrengatiko gastu fiskalik 2020ko ekitaldian; izan ere, integrazioak handiagoak izan dira egungo egoera

2.3. Reserva especial para la nivelación de beneficios

El artículo 52 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible en el importe de su resultado contable positivo que se destine a la dotación de una reserva especial para nivelación de beneficios hasta un importe máximo del 10 por 100 de la parte de ese resultado sobre la que puedan disponer libremente.

No existe gasto fiscal por este concepto en el ejercicio 2020, ya que las integraciones han sido superiores a las reducciones como

ekonomikoaren ondoriozko murrizketak baino, eta, beraz, ez da zenbatesten zenbatekorik 2022ko ZGArako.

consecuencia de la actual coyuntura económica, por lo que no se estima importe alguno para el PGF 2022.

2.4.Ekintzailetza eta ekoizpen-jarduera sustatzeko erreserba berezia

11/2013 FAko 52. artikuluan, kontabilitateko emaitza positiboaren zenbatekoaren 100eko 60ko murriztapena biltzen da zerga-oinarrian, betiere ekintzailetza eta ekoizpen-jarduera sustatzeko erreserba berezirako baliatzen baldin bada.

Kontzeptu horrengatiko gastu fiskala 0,8 milioikoa izango dela kalkulatu da, aurreko ZGA baino % 36 handiagoa, 2020ko ekitaldian erdietsitako datuak ikusita.

2.4. Reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva

El artículo 53 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible en el 60 por 100 del importe del resultado contable positivo que se destine a la dotación de una reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva.

El gasto fiscal por este concepto se estima en 0,8 millones, un 36% superior al anterior PGF, a la vista de los datos obtenidos en el ejercicio 2020.

3.- Zerga-tasa bereziak

Zerga-gastua dago lortutako errenta osoari nahiz zati bati orokorra baino tasa baxuagoa ezartzen zaionean eta hori, 2018ko ekitaldirako soilik, ehuneko 26koa da, 2/2008 FAn ezarritakoaren arabera.

Kontzeptu horri dagokion zerga-gastuaren zenbatekoa lortzeko, karga-tasa orokorra eta ezarri den benetako tasaren arteko diferentzia biderkatu behar da aitortutako oinarri likidagarriaz, Bizkaiari dagokionez, azken ekitaldietan eskuratu diren emaitzak ikusiz zenbatespena eginda lortuta.

- Mikroenpresak eta enpresa txikiak: sortutako likidazio-oinarri positibo osoari aplikatzen diote % 20ko tasa, eta horrek tasa orokorrarekiko % 4ko aldea dakar. Zenbatespenak egiteko, susperraldiaren egoera ekonomikoa hartzen da kontuan, eta horrek benetako gastu fiskala handitzea dakar kolektibo horrentzat, ia 23 milioi euroko zenbatekoa kalkulatzen baita, batez ere enpresa mota horren zerga-oinarria handitzeko aurreikuspenaren

3.- Tipos impositivos especiales

Existe gasto fiscal cuando una parte o la totalidad de la renta neta obtenida tribute a un tipo de gravamen inferior al general. siendo este, según se establece en la NF 2/2018, a partir del ejercicio 2019, el 24 por ciento.

El volumen de gasto fiscal por este concepto resulta de multiplicar la diferencia del tipo aplicado respecto del tipo impositivo general por la base liquidable positiva declarada, correspondiente a Bizkaia, obtenida por estimación a la vista de los resultados obtenidos en los últimos ejercicios.

- Microempresas y Pequeñas Empresas: Aplican el tipo del 20% a toda la base liquidable positiva generada, lo que conlleva una diferencia de 4 puntos porcentuales con el tipo general. Para las estimaciones se tiene en cuenta la coyuntura económica previsible de recuperación, lo que conduce a un incremento para este colectivo del gasto fiscal real obtenido estimándose un importe de casi 23 millones de euros,

ondorioz, 2020ko ekitaldian murriztu egin baitzen.

– Kooperatiba-sozietateak: % 20ko tasa orokorrarekiko diferentziarekin aplikatzen da zergen aldetik babestutzat jotzen direnen enpresetan eta, gainera, enpresa txikien parekotzat jotako enpresetan ere bai, % 18koa eta % 19koa, zerga berezian aplikatu beharrekoa. Sozietate mota horren zerga-oinarria handitzea ezaugarri duten 2020ko Sozietateetan erdietsi diren emaitzak kontuan hartuta, ia 2,4 milioi euroko gastu fiskala kuantifikatzen da kooperatiba guztientzat.

– Beste zerga-tasa berezi batzuengatiko gastu fiskalaren estimazioak gora egin du, batez ere 2020ko ekitaldiko zerga-oinarria handitu delako; guztira, ia 1,3 milioi euro izan dira.

Orokorra ez den beste zerga-tasa batzuk aplikatzeagatiko gastu fiskala 26,6 milioi eurokoa da guztira, hau da, aurreko ZGAren zenbatespenik zuhurrena baino % 28 handiagoa.

4.- Kuotan egindako kenkariak

1. Inbertsiorako pizgarriak

Zerga arautzen duen araudian jasotako neurri inbertsio-pizgarriei buruzko zerga-gastuak zenbatestea da. Enpresa-inbertsiorako zerga-pizgarriek osatzen dute zergaren etekinen zati handia.

Kenkari horien aplikazioa inplizituki dago lotuta kenkari aplikatuen zenbatekoaren eta kuota likidoaren arteko erlazioarekin. Kuota horrek behera egiten duen heinean, zenbaturiko kenkariak ere jaisten dira (baina ez sozietateek sorturikoak, zeren kuota

debido principalmente a la previsión del aumento de la base imponible de este tipo de empresas, que había disminuido en el ejercicio 2020.

– Sociedades Cooperativas: se aplica a la diferencia con el tipo general de los tipos del 20% a las consideradas fiscalmente protegidas, del 18%, además, en el caso de Microempresas y Pequeñas Empresas, y del 19%, aplicable a la base especial. Dados los resultados obtenidos en Sociedades 2020 que se caracterizan por el incremento de la base imponible de este tipo de sociedades, se realiza una cuantificación del gasto fiscal de casi 2,4 millones de euros para la totalidad de las cooperativas.

– Se incrementa la estimación del gasto fiscal por otros tipos impositivos especiales, principalmente por el aumento de la base imponible del ejercicio 2020, ascendiendo a un total de casi 1,3 millones de euros.

El total de gasto fiscal por la aplicación de tipos impositivos diferentes al general se cuantifica en 26,6 millones, cifra que implica aumentar en un 28% la estimación respecto a la estimación más prudente del precedente PGF.

4.- Deducciones en la cuota

1. Incentivos a la Inversión

Se trata de cuantificar los gastos fiscales relativos a las medidas incentivadoras de la inversión contenidas en la normativa reguladora del impuesto. Los diversos incentivos fiscales a la inversión empresarial constituyen el grueso de los beneficios fiscales del impuesto.

La aplicación de estas deducciones está implícitamente ligada a la relación entre el importe de las deducciones aplicadas y el importe de la cuota líquida. En la medida que esta disminuye también lo hacen las deducciones computadas (no así las generadas

handiagoko ekitaldirako atzeratzen baitute aplikazioa).

Zergen arloko Neurriei buruzko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, murriztu egin du kuota likidoaren muga, aipaturiko kuota horren % 45etik % 35era, eta % 70eko muga ezarri du I+G-ri eta Berrikuntzari dagozkien kenkarietan; aurreko ekitaldietan ez zegoen halakorik.

Araudiaren aldaketa horrek eragina izan behar du ekitaldiko zerga-gastuaren zenbatespenean, zeren eta enpresek sortutako kenkariekiko eta ekitaldi bakoitzean aplikaturikoekiko egiten baitira zenbatespena. Kuota likido nahikorik ez izateak edo horren gaineko muga aldatzeak eragina du enpresa bakoitzak aurreko urteetan aplikaturiko kenkariak oinarri hartuta eginiko kalkuluetan.

Horri dagokionez, oraingo araudian kenkarien kontzeptu asko ezabatu badira ere, hainbat ekitalditan ez du berehalako eraginik izango zerga-gastuen kuantifikazioan. Izan ere, aurreko urteetan sortuak diren eta oraindik aplikatu ez diren saldoak daude.

Aurkeztu diren 2020ko ekitaldiko azken aitorpenetan lortutako datuak eta COVID-19ari buruzko 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez luzatutako neurriak kontuan hartuta, pizgarrien kuotan aplikatuko diren kenkarietarako guztizko gastu fiskala 144 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.

ZGA egitean, ekitalditik datozen kenkari aplikatuen irizpidea jarraitzen da, baita aurreko urteetan sortutako saldo aplikatuen irizpidea ere, saldo horiek egiazko kuotan duten efektua nabarmentzeko.

por las sociedades que ven aplazada su aplicación a ejercicios con mayor cuota).

La Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, de Medidas Tributarias, en lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades, ha reducido para ejercicios posteriores a 2018 el límite de la cuota líquida desde el 45% hasta el 35% de la mencionada cuota y ha establecido un límite para aquellas deducciones relativas a I+D y a la Innovación del 70% que en ejercicios anteriores no existía.

Este cambio normativo deberá influir en la estimación del gasto fiscal del ejercicio porque dichas estimaciones se realizan sobre las deducciones generadas por las empresas y sobre las aplicadas en cada ejercicio. La insuficiencia de cuota líquida o la variación del límite sobre la misma afecta a los cálculos efectuados en base a las deducciones aplicadas en años anteriores por cada empresa.

A este respecto hay que matizar que, si bien en la normativa actual se han eliminado muchos conceptos de deducciones, se estima que no tiene efectos inmediatos en la cuantificación de los gastos fiscales durante varios ejercicios ya que existen saldos pendientes de aplicar generados en años anteriores.

Dados los datos obtenidos en las últimas declaraciones presentadas del ejercicio 2020 y las medidas prorrogadas por DFN 11/2020 relacionadas con la COVID-19, se estima un importe de 144 millones de euros el gasto fiscal conjunto para las deducciones que se aplicaran en la cuota por incentivos.

En la confección de este PGF se sigue el criterio de las deducciones aplicadas procedentes del propio ejercicio y los saldos aplicados procedentes de deducciones generadas en años anteriores para destacar el efecto en la cuota efectiva de dichos saldos.

Arlo honetan hainbat gauza hartu behar dira kontuan:

⇒ Ekitaldian bertan sortutako eta aplikatutako kenkarien zenbatekoa ia 61,3 milioikoa izango dela kalkulatu da, eta Sozietateetan aplikatuko diren aurreko urteetako saldoen zenbatekoa, berriz, 78,96 milioikoa.

⇒ Azken ekitaldian aurkeztutako aitorpenetan, aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioek sortutako kenkaria murriztu egin da aurreko ekitaldiarekiko, COVID-19 delakoaren ondorioz. Hala ere, oro har gehiago inbertituko dela aurreikusi denez, SZren 2021erako 41,3 milioi inbertituko dira, aurreko urteko zenbatespenaren aldean %1,7 gehituta.

⇒ I+G-ren ziozko kenkariaren ondoriozko zerga-gastua 13,7 milioian zenbatetsi da, aurreko urtean baino igoera handiagoa, zientzian eta ikerketan egindako inbertsioak handitu egingo direla aurreikusten baita.

⇒ Enplegua sortzeagatiko kenkaria murriztu egin da 2020ko ekitaldian lortutako datuak kontuan hartuta, 2,6 milioi eurokoa baita.

⇒ Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, bereziki babesturik dauden sozietate kooperatiboek aplikatutako kenketak kuotako kenkariak izatera pasatzen dira eta 2021eko Sozietateen gaineko Zergan 3,3 milioi euroan zenbatetsi dira.

⇒ TicketBAI sistemara egokitzeko kenkaria 100.000 euro ingurukoa da.

⇒ Azkenik, nabarmentzekoa da 2020ko ekitalditik aurrera kenkari berri bat sartu dela Portu Agintaritzek egindako

Hay que tener en cuenta en esta materia varias circunstancias:

⇒ Se estima en casi 61,3 millones el importe de las deducciones generadas y aplicadas en el propio ejercicio y en 78,96 millones el importe de los saldos de años anteriores que se aplicarán en Sociedades 2021.

⇒ En las declaraciones presentadas en el último ejercicio se ha producido una disminución de la deducción generada por inversiones en activos no corrientes nuevos respecto al ejercicio anterior debido a la COVID-19, no obstante, previendo que en general se invertirá más, se estima para IS de 2021 en 41,3 millones con un incremento del 1,7% respecto a la estimación del año anterior.

⇒ El gasto fiscal derivado de las deducciones por I+D e innovación, se estima en 13,7 millones, con un incremento respecto al aplicado en el año precedente ya que se prevé que las inversiones en ciencia e investigación aumenten.

⇒ La deducción por creación de empleo aplicada disminuye teniendo en cuenta los datos obtenidos en el ejercicio 2020, con un importe que asciende a 2,6 millones de euros.

⇒ Ateniéndonos a la normativa vigente, las bonificaciones aplicadas por las sociedades cooperativas especialmente protegidas pasan a ser deducciones en cuota y para el IS 2021 se cuantifican en 3,3 millones de euros.

⇒ La Deducción de adaptación al sistema TicketBAI se estima en cifras cercanas a los 100.000 euros.

⇒ Por último, cabe destacar la introducción a partir del ejercicio 2020 de una nueva deducción por inversiones realizadas por

inbertsioengatik (11/2013 Foru Arauaren 60 bis artikulua), erakunde mota horiek zuten salbuespen subjektiboa ezabatzearen ondorioz, eta 309.000 euroko zenbatekoa kalkulatzen da 2021eko ekitaldirako.

2022ko ZGArako Sozietateen gaineko Zergako zerga-etekinen guztizko zenbatekoa, 2021eko ekitaldian, 272,78 milioi euro da, hots, aurrekontuan jasotako guztizkoaren % 8,13 eta zerga horren sarrera teoriko guztien % 30,5. Izan ere, ia %16,2 jaitsiera izan du aurreko ZGAren aldean.

Aurreko urteko ZGArekin alderatuta, termino absolutuetan, 37,9 milioi euroko gehikuntza gertatu da. Hau da, % +16,2 bakarrik aldatu da.

las Autoridades Portuarias (art. 60. bis de la NF 11/2013), como consecuencia de la eliminación de la exención subjetiva de que disfrutaban este tipo de entidades, estimándose un importe de 309.000 euros para el ejercicio 2021.

El importe total de los beneficios fiscales en el Impuesto sobre Sociedades para el PGF 2022, relativos al ejercicio fiscal 2021, se sitúa en 272,78 millones lo que representa el 8,13% del total presupuestado y un 30,5% del total de ingresos teóricos por esta figura impositiva con un incremento de casi un 16,2% respecto al PGF precedente.

Respecto al PGF del año anterior, se produce un incremento de casi 37,9 millones de euros en términos absolutos lo que supone una tasa de variación porcentual de +16,2 por ciento.

III. Ondarearen gaineko Zerga.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren edukitik abiatuz, zerga-gastua osatzen duten elementu kontzeptualak eta zenbatespenen alderdi metodologikoak zehaztu ditzakegu.

Zerga honi dagokionez zerga-gastua eratzen duten kontzeptuen zehaztapena ez da aldatu aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Ildo horretatik ondoko kontzeptu hauek definitu ditugu:

- Zerga-gastua salbuetsita dagoen gutxiengoagatik.

2020. ekitaldietako ondarearen aitorpenak irakurri ziren eta simulazioak egin ziren salbuetsi gabeko gutxieneko ezarekin eta oinarri likidagarri berria eskuratu zen; oinarri horrekin zergaren indarreko tarifara joan zen. Etorkizunerako, simulazio horiek oinarri hartuz egin da zenbatespena.

2022. urtean Ondarearen gaineko Zergaren 2021eko aitortzaileek kenkaria aplikatuko dute zerga-oinarrian, hain zuzen ere 800.000 eurokoa,

III. Impuesto sobre el Patrimonio

A partir del contenido de la Norma Foral 2/2013 de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio podemos determinar los elementos conceptuales constitutivos de gasto fiscal, así como los aspectos metodológicos de las estimaciones.

La determinación de los conceptos que constituyen gasto fiscal en este impuesto no ha variado con respecto a presupuestos anteriores. Así definimos los siguientes conceptos:

- Gasto fiscal por mínimo exento

Se procede a la lectura y simulación en las declaraciones de patrimonio del ejercicio 2020 la no existencia del mínimo exento y se obtienen una nueva base liquidable con la cual se acude a la tarifa vigente del impuesto. Se realiza una estimación futura en base a dichas simulaciones.

En el año 2022 los declarantes del Impuesto sobre el Patrimonio 2021 aplicarán una reducción en base imponible de 800.000 euros para la obtención

oinarri likidagarria eskuratzeko, horrek esan nahi du kuotan zenbatetsi den kostua 46,9 milioi euro dela, eta zenbatekoak gora egin duela aitortzaile gehiago egon direlako.

- Ohiko etxebizitzaren ziozko salbuespenaren zerga kostua.

  Zergadunaren ohiko etxebizitzaren ziozko salbuespena, aurreko ekitaldietan gertatu den bezala, gehienez 400.000 eurokoa den muntaraino ezarrita dago, baina aldatu egin da 2016ko Ondarearen gaineko Zergaren prestazio guztietarako higiezin guztiak zenbatzeko balioa, ohiko etxebizitzarena barne. Egotzi daitekeen balioaren % 50era igo da.

  Hala ere, 2021eko zerga-ekitaldirako lortu den zerga-gastuaren zenbatekoa, 2022ko ZGAn konputatu beharrekoa dena, apur bat igo da, 2020 ekitaldiari dagozkion benetako datuak ikusita. 7,6 milioi euro baino apur bat gehiagoko zenbatespena egin da, aurkezturiko aitorpen bakoitzean ohiko etxebizitza salbuetsi legez adierazitako ondasun higiezinen balio berria likidazio-oinarrian sartzearen simulaziotik lortua.

- Kuota osoaren muga PFEZren kuotarekin batera.

  Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenetan lortutako datuak ikusita, gastu fiskal hori IP2021en aitorpenetan 65,8 milioi eurotan kuantifikatzen da, aurreko urteko estimazioarekiko ia aldaketarik gabe.

  2021eko Ondarearen gaineko Zergaren zerga-gastuaren guztizko zenbatekoa 120,3 milioi euro da (% 0,29ko hazkundea izan du), hots, zerga-onurarik egon ezean zenbatuko liratekeen guztizko sarrera teorikoen % 58. Guztizko zerga-gastuaren % 3,6 besterik ez da.

de la base liquidable, lo que supondrá un coste estimado en cuota líquida de 46,9 millones de euros, sin variación significativa en su cuantía respecto del año anterior.

- Coste fiscal por exención de la vivienda habitual.

  La exención de la vivienda habitual del contribuyente sigue establecida, como en ejercicios anteriores, hasta un importe máximo de 400.000 euros. Sin embargo, el valor por el que hay que computar todos los inmuebles incluida la vivienda habitual se modificó a partir de las presentaciones del Impuesto de Patrimonio 2016, incrementando el mismo hasta el 50% del Valor mínimo Atribuible (VMA).

  El importe de gasto fiscal obtenido para el ejercicio fiscal 2021 a computar en el PGF 2022, disminuye muy levemente a la vista de los datos reales del ejercicio 2020. Se realiza una estimación de 7,6 millones de euros, obtenida de la simulación de incluir en la base liquidable el nuevo valor de los bienes inmuebles declarados como vivienda habitual exenta en cada declaración presentada.

- Límite de cuota íntegra conjunto con cuota del IRPF.

  A la vista de los datos obtenidos en las declaraciones del Impuesto sobre Patrimonio, se cuantifica este gasto fiscal en las declaraciones de IP2021 en 65,8 millones de euros, sin prácticamente variación respecto a la estimación del año precedente.

  El monto total de gasto fiscal en el Impuesto sobre el Patrimonio 2021, se eleva a poco más de 120,3 millones de euros con un incremento del 0,29% y supone un 58% sobre los ingresos totales teóricos que se computarían si no existiesen dichos beneficios fiscales. Sobre el gasto fiscal total supone tan sólo un 3,6 por ciento.

IV. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) harmonizatuta dago Europako Batasun osoan. Estatu kideen araugintza-ahalmena mugatuta dago Europako erregulazioak berariaz aurreikusitako alderdi jakinetara.

Bestalde, kontuan hatu behar da BEZ Doikuntza deritzona. Estatuaren Administrazioaren eta Euskadikoaren arteko finantza doikuntza hau oinarritzen da zerga-administrazioen artean bilketa teoriko eta benetako bilketa egokitzeko duten beharrizanean.

Horrek guztiak Euskadiri berak arautze-gaitasunik ez duen zerga bat dakarkio; horren arabera, ordainarazteko gaitasuna banandu egiten da aurretiaz erabakitako konexio-puntuen arabera eta, azkenean, BEZaren bilketaren banaketa egiten da, doikuntza bidez, zerga-administrazioen artean -Estatua eta Euskadi-, irizpide makroekonomikoen arabera.

BEZen zerga mozkinik dakartela irizten zaien kontzeptuen multzoa ez da aldatzen aurreko urteen aldean eta honako hauek osatzen dute:

1.- Kulturarekin, osasungintzarekin, gizarte laguntzarekin, hezkuntzarekin, kirolekin, finantza zerbitzuekin eta zerbitzu profesionalekin loturiko zerbitzu publiko eta pribatu batzuei buruzko zergetatik salbuetsitako salmenak.

2.- Zergaren egiturazko elementua den ehuneko 21eko alikuota estandarraz bestelako ehuneko 4ko edo 10eko zerga-tasa murriztuetako edozeinen pean dauden eragiketak.

Tasa murritzarekin (BEZren Foru Arauaren 91. bat artikuluan aurreikusitako eragiketak) eta oso tasa murritzarekin (BEZren Foru Arauaren 91. bi artikuluan aurreikusitakoak) zamatutako eragiketak zerga-gastua dira, beraz. Zerga-gastu horrek garrantzi ekonomiko handia du, herritarrek

IV. Impuesto sobre el Valor Añadido

El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) está armonizado en el conjunto de la Unión Europea. La capacidad normativa de los Estados miembros se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria.

Por otra parte, ha de tenerse en cuenta el denominado Ajuste IVA. Este ajuste financiero entre la Administración del Estado y del País Vasco se fundamenta en la necesidad de adecuar las recaudaciones, teóricas y reales, entre las Administraciones tributarias.

